

Jardunaldiak praktika onak aztertzeko

2006/05/29



Ekainaren 16an, eta **Mondragon Unibertsitateak** antolatuta, jardunaldiak egingo dira Otorora Hezkuntza Zentroan, Aretxabaletan, "**Praktika egokien eredu propio baterantz**", eta hor unibertsitateko irakasleek aukera izango dute beraien esperientziak eta praktikak partekatzeko.

Aurkezpenak 15-20 minutukoak izango dira, powerpoint formatuan eginda, eta gaia libre izango dute: klase magistralak, praktikak, AOI-PBL, tutoretzak... Gaiak maiatzaren 26rako bidali behar dira helbide honetara: info@mondragon.edu Aurkezpenak, berriz, ekainaren 14rako bidali behar dira, helbide berera.

Egitaraua

09:00 Aurkezpena.

09:15 Esperientziak aurkeztea.

11:15 Atsedena.

11:45 Esperientziak aurkeztea.

14:00 Bazkaria.

15:30 Hausnarketa aurkezturiko esperientzien gainean.

17:30 Azken ondorioak.